

Euskal Kostaldeko Geoparkeko II Argazki Geologikoen Lehiaketa

(Eurapako Geoparkeen Astea maiatzak/ 28 – ekainak 3)



Argazkiak aurkezteko epea:
2012ko apirilak 23tik- maiatzaren 23ra

Koordinazioa

Xabier Murelaga eta Juan Ignacio Baceta
Estratigrafia eta Paleontologia Saila
Zientzia eta Teknologia Fakultatea
UPV/EHU

Zumaia, Deba eta Mutrikuk (Gipuzkoa) Euskal Kostaldeko Geoparkea osatzen dute, eta 2010az geroztik **UNESCOk** babesten duen **Europar Geoparkeen Sareko** kide da geoparke hau. Euren ondare geologikoa, naturala eta kulturala babestuz eta balorean jarriz, tokiko garapen jasangarria lortzeko modu aktiboan lan egiten duten lurraldeak dira Geoparkeak. Europar Geoparkeek aurrera eramaten dituzten ekimenen artean **Europar Geoparkeen Astea** dago, eta ekimen honen baitan **Euskal Kostaldeko Geoparkeak** argazki geologikoen lehiaketaren edizio berri bat antolatu du.



Euskal Kostaldeko Geoparkearen Kudeaketarako Elkarte



Asociación para la Gestión del Geoparque de la Costa Vasca

OINARRIAK

1. Gaia

Argazki lehiaketa honen gaia Euskal Kostaldeko Geoparkeko geologiaren edozein adarrekoa da. Argazkiak baloratzeke garaian, gaiarekin zerikusia duen argazkien kalitate artistikoa eta zientifikoa hartuko dira kontutan.

2. Partaideak

Euskal Erkidegoko eta inguruko Komunitateetako edozein Bigarren Hezkuntza eta Batxilergo Ikastetxetako ikasleek parte har dezakete.

DBHko lehen hiru argazki onenak eta Batxilergoko lehen hiru argazki onenak sarrituko dira.

Lehen saria: Diploma eta mendiko arropa erosteko 300 euroko bonoa,

Bigarren saria: Diploma eta mendiko arropa erosteko 200 euroko bonoa,

Hirugarren saria: Diploma eta mendiko arropa erosteko 100 euroko bonoa

Lehiakideen argazkiak Geoparkeko web gunean www.geoparkea.com esekiko dira eta heziketa-helburu, helburu akademikoetarako edo antzekoetarako dituzten ekintzetan erabili ahalko dira, beti ere, irabazi-asmorik gabeko eta efektu komertzialik gabekoetan.

3. Argazkien ezaugarriak

Irudiak derrigorrez originalak eta argitaragabeak izan beharko dute, ezin izango dira aurkeztu beste lehiaketaren batean hautatutakoak edo sarituak izandakoak eta hirugarrenentzako eskubide gabekoak izan behar dira.

Argazkiak formatu digitalean JPEG moduan, koloretan edo zuri-beltzean aurkeztuko dira. Ez dira onartuko manipulazio digitala edo ukituzko-teknikaren baten bidez aldatuak izan diren argazkiak. Era batera edo bestera, artxiboak 9 MB edukia ezingo du gainditu.

Partaide bakoitzak gehienez hiru argazki aurkez ditzake, baina saritua bakarra izango da.

4. Aurkezteko era eta bidaltzea

Aurkezten den argazki bakoitza posta elektronikoa bakarrez itsatsia bidaliko da eta e-mailaren testu barnean lanaren izenburua, irudiaren esanahiaren azalpena (gehienez 200 karaktere tarterik gabe) eta kokapena adieraziko dira. Horrez gain eta aurrekoarekin batera, egilearen izen-deiturak, NANA, helbidea, harremanetarako telefonoa, helbide postala, posta elektronikoa helbidea eta DBHko eta Batxilergoko zein mailetako ikaslea den adieraziko dira (azken puntu hau garrantzitsua da argazkia DBH edo batxilergokoaren modalitatean koaktu ahal izateko).

Era berean, e-mail berdinean argazkien erakusketa eta argitaratzea eskumena ematen duen baimena idatzi beharko da.

Mezuak iristen doazen heinean, lehiaketaren antolatzaileak argazki bakoitza zerbaitzuk du eta, partaideen identifikazio datuen eta argazki-erlazioaren arteko datu-base egingo du.

Epaimahaiak zerbaitzuk argazkiak izango dituzte eta soilik antolatzaileak jakingo du partehartzaileen nortasuna.

5. Aurkezteko lekua eta data

Argazkiak 2012ko apirilaren 23tik maiatzaren 23ra bidali beharko dira, posta elektronikoa bidez helbide honetara: xabier.murelaga@ehu.es.

Posta elektronikoa jasotako eguna aurkezpen data modura kontsideratuko da.

6. Epaimahaia

Epaimahaikideak UPV/EHUko Zientzia eta Teknologia Fakultateko Geologia Ataleko irakasleek dira. Mineralogia eta Petrologia Saileko Ainhoa Alonso Olazabal, Luis Angel Ortega eta M^a Cruz Zuluaga doktoreak eta Geodinamika Saileko Jesus Angel Uriarte doktorea.

Epaimahaiak erabakia hartzerakoan irudiaren argazki-kalitatea ez ezik bitxitasuna, originaltasuna eta beraren dibulgazio ezaugarriak kontutan izango ditu. Era berean, argazkiaren esanahiaren azalpenaren zehaztasun zientifikoa ere.

Epaimahaikideak oinarri hauetan aurreikusten ez den beste edozein usteko kasuaren aurrean bere irizpidearekin ebatziko du.

Epaimahairen erabakia Geoparkeen astean (maiatzak 28tik ekainak 3ra) eta www.geoparkea.com webgunean zabalduko da. Epaimahaiaren erabakia ezin da eztabaidatu edo ezin zaio horri gaitziritzi. Salbuespen modura sariak hutsik gera litezke.

Sari banaketa Zumaiko Algorri Zentruan maiatzak 30an arratsaldeko 18:30etan izango da.

7. Informazioa eta harremanetarako

Xabier Murelaga Bereikua

Estratigrafia eta Paleontologia

Zientzia eta Teknologia Fakultatea UPV/EHU

Sarrienea s/n 48940 Leioa

E-maila: xabier.murelaga@ehu.es

telf 946015428/946017486

www.geoparkea.com

8. Onespina

Euskal Kostaldeko Geoparkearen II argazki Geologiko Lehiaketan parte hartzeak oinarriak osorik onesten direla esan nahi du eta baita epaimahaiaren erabakiak ere.